

JASPER JOHNSEN ATZERABEGIRADA: GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA



**Jasper Johns: Night Driver. 29.05.2026 -
12.10.2026**

Jasper Johns artistari eskainitako atzerabegirako honek gure garaiko sortzailerik entzutetsuenetako baten ibilbide zabala jasotzen du, 1950ko hamarkadan egin zituen lehen lanetatik hasi eta 2000. urteaz geroztik sortu dituen berrienetara.

Erakusgai dauden pieza gehienak margolanak dira, baina badaude paper gaineko hainbat lan eta zenbait eskultura ere, eta guztien artean agerian jartzen dute artistaren ekoizpenak berezkoak dituen ardatz tematikoak.



Jasper Johns 1930ean jaio zen Augusta hirian (Georgia, AEB), eta Hego Carolina eta New York artean hazi eta hezi zen, harik eta 1953an New Yorken finkatu zen arte. Han, hainbat artista ezagutu zituen, hala nola Robert Rauschenberg, John Cage konpositorea eta Merce Cunningham koreografoa, eta, haiekin batera, sakonki eraberritu zuen hiriko sormen-eszena.

1954–55ean, Johnsek bere lehen AEBko bandera margotu zuen. Zeinuz eta bestelako elementu lauz —zebakiak, ituak, mapak— osatutako sail bateko lehen lana izan zen hura, eta pieza haiek Pop artearen aitzindaritzat jo ziren, erraz ezagutzeko moduko eguneroko gaiak irudikatzen baitzituzten.

1958an Leo Castelli galerian ikusgai jarri ondoren, obra haiek berehalako ospea eman zioten artistari. Garai hartan, Johnsek harremana zuen Marcel Duchampekin, eta azken horren obrak eta pentsamenduak eragin nabarmena izan zuten berarengan.

Espressionismo abstraktuaren erretoriketarik urrun, Johnsek artearen izaera bera arakutzen duten sailen bidez garatu zuen bere lana, eta minimalismoaren zein arte kontzeptualaren aurrelari ere izan zen hartara.

Bere ibilbidean zehar, hainbat artistari buruzko erreferentziak agertu izan dira Johnsen obretan —Matthias Grünewald, Barnett Newman, Hans Holbein, John F. Peto, Edvard Munch, Paul Cézanne, Pablo Picasso edo René Magritte, besteak beste—, baita zenbait idazleren aipu esplizituak ere, hala nola Hart Crane, Frank O'Hara eta Samuel Beckettenak.

[Informazio gehiago](#)



[Ver esta publicación en Instagram](#)



Una publicación compartida de Museo Guggenheim Bilbao (@museoguggenheim)